# MUNDAKA

*Ongi etorri*



Euskara-Castellano

# Aurkezpena

Mundaka Bizkaiko probintziaren kostaldeko herri lasai eta atsegina dugu. Izen bereko itsasadarraren ezkerraldean dago, Busturialdea-Urdaibai eskualdean.

Mundakako herriak betidanik izan du itsasoarekiko lotura eta, halaber, munduari irekita egon da. Mendez mende, bertako jendea Euskal Herriko nabigazioaren eta arrantzaren historiaren protagonista izan da.

Natur ingurune paregabean –Urdaibai Biosfera Erreserban, alegia– kokatuta izanik, Mundakak kulturari, ohitura zaharrei eta hizkuntzari (euskarari) eustea lortu du, eta oso gogoko du ondare bikain hori lagun eta bisitariekin partekatzea.

Urteko sasoi guztiak dira onak Mundaka bisitatzeko. Udan bizitasuna eta algara dira nagusi, jende asko etortzen baita lekuaren giro onak eta edertasunak erakarrita. Mundu osoko surfzaleak ere etortzen dira bertako olatuez gozatzera; izan ere, adituen esanetan, Europa osoko ezker olatu oneneta-koa da Mundakakoa.

## Ongi etorri! Mundakara

MUNDAKAKO UDALA



# Presentación

Mundaka es una agradable y tranquila localidad costera de la provincia de Bizkaia, situada en la comarca de Busturialdea-Urdaibai, en la margen izquierda de la ría que lleva su nombre.

El pueblo de Mundaka siempre ha estado ligado al mar y abierto al mundo. Durante siglos, sus gentes han sido protagonistas de la historia de la navegación y la pesca del País Vasco.

Ubicada en un entorno natural privilegiado, la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, Mundaka ha sabido conservar su cultura, sus tradiciones y su idioma: el euskera. Todo un patrimonio para disfrutar y compartir con amigos y visitantes.

Cualquier época del año es buena para visitar Mundaka. El verano es animado y bullicioso ya que son muchos los que se acercan a la localidad atraídos por el buen ambiente y la belleza del lugar. También amantes del surf llegan de todo el mundo a disfrutar de la que es considerada por los expertos una de las mejores olas de izquierda de toda Europa.

## Ongi etorri! ¡Bienvenidos/as a Mundaka!



# Historia

Mundaka izena duen ibaia itsasoratzen den lekuan kokaturik dagoen herria eta Busturiko merinaldeko elizatea. Jatorriz oso zaharra da eta, dudarik gabe, inork ez daki nondik datorren eta hori dela eta, aspaldidanik, herri honen fundazioa fabula eta kondairetan oinarritu dute.

Mundakako elizatea, hasiera batean Munaca izenaz ezagutzen zena, zalantzarik gabe, zahar-zaharra dugu, Bizkaiako Jaurerriko Batzar Nagusienetan lehenengo botu eta jarlekua okupatu baitzituen eta horrek Jaurerriko elizaterik zaharrena zela adierazten zuen.



Mundakari buruz agertzen diren lehen albisteen artean Altamirako Jauregia daukagu, non dirudienez, XI. Mendearen bukaeran Eskoziako Infanta bizi ohi zen, Jaun Zuriaren ama, Bizkaiko lehenengo Jauna.

Herrian aintzinatik arrantza eta itsasoko merkataritzan dihardute batik-bat (arrantzaleen kofradi garrantzitsu bat zegoen bertan). XIX mendearen bukaeratik eta XX mendearen hasieratik, elizatea berriztu eta aldatu egin zen eta beste irabazi iturri bat sortuko zen, turismoa, batez ere 80ko hamarkadan, Surf-eko gorengo uneagatik, Euskal Herria osoan, eta nagusiki Mundakan, bere ezker olatuagatik, munduko onenetariko bat.





# Historia

Mundaka, municipio situado en la desembocadura de la ría que lleva su nombre, es una anteiglesia pertenenciente a la merindad de Busturia. Su origen es muy antiguo y desconocido, por lo que durante mucho tiempo se le han atribuido fundaciones basadas en fábulas y leyendas.

Prueba de su antigüedad es que Mundaka, cuyo primer nombre conocido fue Munaca, ocupó el voto y asiento número uno en las Juntas Generales del Señorío de Vizcaya, por lo que se interpreta que es la anteiglesia más antigua del Señorío.

Entre las primeras noticias que se tienen de Mundaka está la existencia del Palacio de Altamira, donde parece ser que, a finales del siglo XI vivió la Infanta de Escocia, madre de Jaun Zuria, Primer Señor de Vizcaya.





El pueblo estuvo dedicado fundamentalmente a la pesca y al comercio marítimo desde tiempos muy antiguos (fue sede importante de una cofradía de pescadores). Desde finales del siglo XIX y principios del XX la anteiglesia se modernizó y transformó, surgiendo una nueva fuente de ingresos, el turismo, sobre todo a partir de los años 80 con el auge del Surf en toda Euskal Herria, y principalmente en este municipio por su famosa ola izquierda considerada como una de las mejores del mundo.

# Zer ikusi/Que ver



## PORTUA

Oso-osorik mantentzen du bere xarma. Udalerriaren erdigunea da, eta hainbat ontziren babesleku. Kaitik sortzen dira alde zaharra osatzen duten kaleak.

### EL PUERTO ▶

Mantiene intacto su encanto. Es el centro del municipio, y refugio de numerosas embarcaciones. Desde el puerto nacen las calles que forman el casco antiguo.



## ATALAIAKO BEGIRATOKIA

Leku aparta da itsasadarraren bokalean sortzen diren olatuen edertasunarekin gozatzeko. Leku lasaia eta ikuspegi hobezina.

### ◀ EL MIRADOR DE LA ATALAYA

Es el sitio idóneo para disfrutar de la belleza de las olas que surgen en la desembocadura de la ría. Un sitio tranquilo con unas inmejorables vistas.

## PORTUONDOKO BEGIRATOKIA

Mundakako itsasadarraren panoramika onenak ikusteko aukera izango dugu, non mendien kolore berdea itsasoarekin elkartzen den.

### EL MIRADOR DE PORTUONDO ▶

Es donde se encuentra una de las mejores panorámicas de la ría de Mundaka, donde el verdor de los montes se junta con el mar.





## ANDRA MARI ELEIZA

Andra Mari eleiza lurralde mailan eraikuntza bikaina da, talaiaren gainetik altuera nabarmenarekin nagusitzen den gotiko-errenazimenduko tenplua. Parrokia hau bazen XI. menderako. 1071. urteko dohaintza dokumentu bat mantentzen baita San Juan de la Peñako monastegian, Aragoin. Honi Andra Mari eliza Mundakako herriarekin batera gehitzen zitzaion.
Eleiza bandoen borroken garaian suntsitu zuten, eta XV. mendean berreraiki eta zabaldu egin zuten. Bertan Pedro Apostuluaren erlikia gurtzen da.

## IGLESIA DE SANTA MARIA

La iglesia parroquial de Santa María es un edificio sobresaliente a nivel territorial, un estupendo templo gótico renacentista que sobresale sobre el atalaya con notable altura. Esta parroquia existía ya en el siglo XI ya que se conserva un documento de donación del año 1071 en el monasterio de San Juan de la Peña, en Aragón, al que se agregaba la iglesia de Santa María junto con la puebla de Mundaka.
La iglesia fue destruida durante las luchas banderizas, siendo reedificada y ampliada en el siglo XVI.

## SANTA KATALINA ERMITA

Santa katalina Ermita, izen bereko penintsulan kokatua, XIX. mendekoa da. Ingurunearen edertasunagatik eta kokapen estrategikoagatik pribilegiozko lekua da, ibaiaren sarrera bete-betean. Mundakako ibaiaren edozein sarrera eta irteera mugimendu mendean hartuz. Trantsiziozko eraikuntza da gotikoaren eta errenazimenduaren artean. Ermita inguratzen duten murruak, garai bereko antzinako gotorleku baten hondarrak dira.

Historian zehar eta hirigune historikoarekin duen urruntasunagatik erabilera desberdinak izan ditu, arrantzaleen kofradiako bilera leku eta izurrite gaixoen berrogeialdi leku esaterako.



## ERMITA DE SANTA CATALINA

La ermita de Santa Catalina situada en la península del mismo nombre, data del siglo XIX. Es un lugar privilegiado por la belleza del entorno y su situación estratégica justo en la entrada de la ría dominando cualquier movimiento de entrada y salida de la misma. Es un edificio de transición entre el gótico y el renacimiento. Las murallas que rodean la ermita, son antiguos restos de un fortín de la misma época.

Durante su historia y debido a su lejanía del núcleo urbano ha tenido diversos usos como lugar de reuniones de la cofradía de pescadores y lugar de cuarentena para enfermos de epidemias.

# Zer ikusi/Que ver



## KALBARIOKO GURUTZEA

Penitentzia gurutzea izen bereko kalean kokatuta dago, errenazentista-erromanista estilo berantiarrekoa da. 1611ko gurutzearen aldeetako batean gurutzefika dago eta bestean Amabirjina umearekin; eta zertxobait ilun dagoen arren, hareharrian honakoa irakur daiteke: “Gurutze hau Rodrigo Abad de Mendecanok eginarazi zuen, zuok irakurleok erregutu subiranoari”.



## LA CRUZ DE CALVARIO

La cruz penitencial está situada en la calle del mismo nombre, es de estilo tardo renacentista romanista. Con el crucifijo a uno de los lados de la cruz y la Virgen con el niño por el otro lado, la cruz está fechada en el año 1611; y aunque está un poco borrosa se puede leer en la piedra arenisca lo siguiente “Esta cruz la hizo hacer Rodrigo Abad de Mendecano vos que sois lector rogad al soberano”.

## LIBURUTEGIA

Egungo liburutegia Santiago bideko erromesentzako eta gaixo kutsakorrentzako ospitalea izan zen antzina. Kostaldeko bidea egiteko asmoz Bermeon lehorreratzen ziren erromesentzako aterpe gisa erabili zen. Ez da ezagutzen zenbatgarren urtean inauguratu zen, baina jakina da 1632 urtean Bizkaiko Jaurerriak bere itxiera agindu zuela.

Liburutegia kokatuta dagoen izkina portuko alderik zaharrena da. Eraikina neoklasiko herrikoi moldean eraikitakoa da, eta garai batean arrantzaleen lonja eta hiltegia izan zen, gaur egun izen horrekin ere ezagutzen da.

## LA BIBLIOTECA

La actual biblioteca del municipio fue un antiguo hospital de peregrinos del Camino de Santiago, recorrido por aquellos que desembarcaban en Bermeo. Se utilizaba para enfermos contagiosos y peregrinos. Se desconoce en que año fue inaugurado pero se sabe que en 1632 el Señorío de Vizcaya ordenaba su cierre.

La esquina donde está situada es la zona más antigua del puerto. Se trata de un edificio neoclásico popular. Se utilizó como lonja de pescadores y también como matadero, nombre por el que también es conocido.





## ARTE ONDAREA

Beste eraikin berezi batzuk ere ezin ditugu ahaztu; esaterako Fraternidad Mundaquesa elkartea (Kasinoa), eta baita ere: Atalaya Hotela, Amaia Enea, Ibaialde Jauregitxoa, Kurutziaga Jauregia. Herriko etxe batzuetako armarriak ere aipagarriak dira. Era berean Udaletxea eta bere arkupeak eraikuntza bikainak direlako.

## PATRIMONIO ARTÍSTICO

No podemos olvidar edificios tan singulares como el que alberga La Sociedad Fratenidad Mundaquesa (El Casino), así como diversos ejemplos de arquitectura residencial (Hotel Atalaya, Amaia Enea, Palacete Ibaialde, Palacio Kurutziaga) y escudos heráldicos en diferentes casas del pueblo. Destaca también el Ayuntamiento con sus pórticos y magnifico porte.





# Natura eta hondartza



1984an. UNESCOk Urdaibai Gizateriaren Ondare eta Biosfera Erreserba izendatu zuen. Bizkaiko Golkoaren txoko lasai batean kokaturiko eremuak flora eta fauna paregabeak ditu, bai eta itsasaldeko klima epel eta hezea ere. Urdaibai eskualdean lau interesgune daude: Mundakako itsasadarrari lotutako hezeguneak, artadi kantauriarrak, kosta-lerroa eta landazabal atlantikoa.

Mundakan, Laidatxu hondartza ipar-haizetik babestutako kala polita da, umeak dituzten familientzat guztiz egokia; Ondartzape hondartza txiki eta lasaia da, Portua eta Txorrokopunta ere bainu-eremuak dira. Ur-kirolak egin daitezke; esaterako, Windsurfa, SUP, urpekaritza, arraunketa eta bela. Surfak atal berezia merezi du, Mundaka paradisu paregabea baita kirol hori egiteko

Portuondoko begiratokitik eta Santa Katalina ermitaren eremutik, itsasadarraren bista onenak ikus daitezke. Paisaia berezi horretan, Ogoño lurmuturra eta Izaro uhartea dira elementu berezienak.



# Naturaleza y playa

Urdaibai fue declarada en 1984 Patrimonio de la Humanidad y Reserva de la Biosfera por la UNESCO. Ubicada en un remanso del golfo de Bizkaia, este espacio único por su flora y fauna, disfruta de un clima oceánico templado y húmedo. En Urdaibai destacan cuatro áreas de interés: las zonas húmedas ligadas a la ría de Mundaka, los encinares cantábricos, la línea de la costa y la campiña atlántica.

En Mundaka la playa de Laidatxu es una bonita cala al abrigo del viento del norte recomendada para familias con niños; la pequeña y tranquila playa de Ondartzape, el puerto y la zona de Txorrokopunta son también zonas de baño. Se pueden practicar deportes náuticos como Windsurf, SUP, buceo, remo o vela. El surf merece un capítulo aparte, ya que Mundaka es un auténtico paraíso para practicarlo.

Desde el mirador de Portuondo y también desde la zona de la Ermita de Santa Catalina se pueden admirar las mejores vistas de la ría, con el cabo de Ogoño y la Isla de Izaro como elementos singulares de este paisaje pintoresco.





# Surfa Mundakan

Surfak Hawai uharteetan du jatorria. Handik, Estatu Batuetara hedatu eta modan jarri zen, XX. Mendeko erdialdera. Geroztik, mundu osoan zabaldu da, Europa barne.

Mundakako ezkerreko olatuak harrotasunez betetzen du herria, eta badu arrazoirik, Europa mailan kategoria horretako olatu hoberentzat jotzen baitute. Ezkerreko olatu famatu honek mundu osoko surflari ugari erakartzen ditu, eta, ondorioz, ura surf taulen koloreez betetzen du. Olatua Mundakako hondarpean hasi eta Laidako hondartzan bukatzen da. Hego Hego-mendebaldeko haizeek sortzen duten uhin honek 4 metroko altuera eta 400 metroko luzera izan ditzake. Urak tutu biribil bat eratzen du, eta barnean surfean ari diren surflariek paisaia zoragarria ikus dezakete; ezaugarri horrek balio erantsia ematen dio olatuari.

Mundakako uretan nazioarteko txapelketa bat antolatzen da urtero eta Munduko Zirkuituko egoitza izan da bederatzi aldiz. Hori dela eta, munduko surflari hoberenetako batzuek olatu honetan handiagotu dituzte beraien garaipen-zerrendak, hala nola, Mark Occhilupo, Kelly Slater, Bobby Martinez eta Adriano de Souza surflariek.







# Surf en Mundaka

El surf, originario de las islas Hawai, se exportó a los Estados Unidos donde, a mediados del siglo XX se puso de moda y posteriormente se extendió al resto del mundo, incluida Europa.

Mundaka presume con orgullo de su ola izquierda, y no es para menos ya que está considerada como la mejor ola de Europa en esta categoría. Esta famosa ola izquierda atrae cada año a numerosos surfistas de todo el mundo que llenan de color las aguas con sus tablas. Nace en la barra de Mundaka y termina en la playa de Laida, formada con vientos del sur-suroeste, puede llegar a alcanzar 4 metros de altura y los 400 m de largo. Su forma de tubo que permite a los surfistas contemplar desde su interior un maravilloso paisaje, le confiere un valor añadido.

Mundaka acoge anualmente en sus aguas competiciones a nivel internacional y en nueve ocasiones ha sido la sede del circuito internacional. Tanto es así que sobre esta ola han engrosado su palmarés algunos de los mejores surfistas del mundo como Mark Occhilupo, Kelly Slater, Bobby Martinez o Adriano de Souza.





A
B
C
D
E
1
2
3
4
5
ERREKA
P
MUNDAKAKO SAIHESBIDEA
LAIDATXU HONDARTZA
FFCC.
LORATEGI KALEA
5
MONDOLLU
GOIKOETXE K.
GOITIZ BIDEA
GOIKO KALEA
ANTZINAKO KALEA
13
6
1
10
9
JUAN
KARMEN K.
FLORENTINO LARRINAGA K.
FRADUPEKO ATXAK
ITXAROPEN K.
7
3
8
AGIRRE LEHENDAKARI ENPARANTZA
GERNIKA
PORTUONDOPE
MALLONA ALKATEAREN K.
WC
KE
ITXAROPEN K.
1
KEPA DEUNA
BEKO TALA
TXORROKOPUNTA IBILTOKIA
7
4
5
a 500m.
LAMINEN ETA ATORREN PARKEA
BAÑUTEGI
AZURTEGI
ANDRA MARI ELIZA (Iglesia)
ELIZATZE
TXORROKOPUNTA
4
3




| | | |
|---|---|---|
| INFORMAZIOA | i | INFORMACIÓN |
| MONUMENTUA | | MONUMENTO |
| OSTATUA | | HOSPEDAJE |
| KANPINA | | CAMPING |
| ATERPETXEA | | ALBERGUE |
| JATETXEA | | RESTAURANTE |
| TABERNAK | | BAR |
| APARKALEKUAK | P | PARKING |
| BUS | | BUS |
| TREN GELTOKIA | | EST. TREN |
| TAXIA | T | TAXI |
| BOTIKA | | FARMACIA |
| BANKUA | € | BANCO |
| SUPERMERKATUA | | SUPERMERCADO |
| POSTA | | CORREOS |
| BEGIRATOKIA | | MIRADOR |
| GASOLINDEGIA | | GASOLINERA |
| UMEEN PARKEA | | PARQUE INFANTIL |
| KULTUR ETXEA | KE | CASA DE CULTURA |
| SURF | | SURF |
| AISIALDIA | | OCIO |

# Zerbitzu gida - Guía de servicios

## JATETXEAK
## RESTAURANTES

**1 ASADOR EL BODEGÓN**
(osteguna itxita • jueves cerrado)
C/ Kepa Deuna, 1. Tel: 94 687 63 53
Eguneko menua • Menú del día • Menu berezia • Menú especial
Karta • Carta

**2 LA FONDA**
(astelehena itxita • lunes cerrado)
Olazabal plazatxoa. Tel: 94 687 65 43
Eguneko menua • Menú del día
Menu berezia • Menú especial

**3 MUNDAKA HOSTEL & SPORTS CAFÉ**
(neguan, astelehena itxita • en invierno, lunes cerrado)
C/ Santa Katalina, s/n. Tel: 94 602 84 77
Eguneko menua • Menú del día
Menu berezia • Menú especial • Karta • Carta

**4 TXAKOLI PORTUONDO**
(neguan, ostiral gauetik igandera zabalik)
(en invierno abierto de viernes noche a domingo)
Ctra. Gernika-Bermeo. Tel: 94 687 60 50
Garagardotegi karta • Carta cervecería

**5 RESTAURANTE PORTUONDO**
(neguan astelehen eta astearteak itxita
(en invierno cerrado lunes y martes)
Ctra. Gernika-Bermeo. Tel: 94 687 60 50
Eguneko menua • Menú del día
Menu berezia • Menu especial • Karta • Carta

CALIDAD TURISTICA

## TABERNAK
## BARES

**1 ATXURRA**
Goiko kalea, 42.

**2 BAR HAMBURGUESERÍA LOS TXOPOS**
Txopuetak kalea, 1.

**3 CAFETERIA HOTEL MUNDAKA**
Florentino Larrinaga, 9.

**4 CAFETERIA HOTEL EL PUERTO**
Txopuetak, 2

**5 EL TXIRINGUITO ATALAYA**
Beko tala

**6 GOIKOA**
Goiko kalea, 40.

**7 IBARRALDE**
Florentino Larrinaga, 13.

**8 IGONTXU**
Agirre Lehendakari plaza, 2.

**9 ITXASNE**
Juan Bautista Longa kalea.

**10 KAIKU**
Florentino Larrinaga, 8.

**11 LA LEÑERA**
Sorkunde, 2 behea

**12 PORTU-BIDE**
Joseba Deuna kalea, 2.

**13 ALEJO BARRIA**
Goiko kalea, 19

**14 LA FONDA**
Olazabal plazatxoa

**15 BODEGON**
Kepa Deuna kalea, 1

# Ostatua - Alojamientos



**1 HOTEL ATALAYA****
Itxaropen Kalea, 1
Tel.: 946 177 000 Fax: 94 687 68 99
www.atalayahotel.es
E-mail: reservas@atalayahotel.es



**2 HOTEL KURUTZIAGA JAUREGIA***
Kurtzio Kalea, 1
Tel.: 946 876 925 Fax: 94 617 70 12
www.kurutziagajauregia.com
E-mail: hotel@kurutziagajauregia.com



**5 APARTAMENTOS MUNDAKA**
Lorategi Kalea, 1
Tel.: 946 028 400 Fax: 94 602 95 95
www.apartamentosmundaka.com
E-mail: info@apartamentosmundaka.com



**3 ECO-HOTEL MUNDAKA***
Florentino Larrinaga, 9
Tel.: 946 876 700 Fax: 94 687 61 58
www.hotelmundaka.com
E-mail: info@hotelmundaka.com



**4 HOTEL EL PUERTO***
Portu Kalea, 1
Tel.: 946 876 725 Fax: 94 687 67 26
www.hotelelpuerto.com
E-mail: info@hotelelpuerto.com



**6 MUNDAKA HOSTEL & SPORTS CAFE**
Santa Katalina Kalea z/g
Tel.: 94 602 84 77
www.mundakahostel.com
E-mail: info@mundakahostel.com



**7 CAMPING-BUNGALOWS PORTUONDO 1ª**
Tel.: 946 877 701
Fax: 94 687 78 28
www.campingportuondo.com
recepcion@campingportuondo.com

# Jaiak eta kultura



**Urtean zehar**, Mundakak jai eta kultura jarduera ugari eskaintzen die bertakoei eta bisitariei. Hona hemen aipagarrienak:

**Aratuste eguna**, **(Igande ihauteri eguna):** Mundakan oso aratuste bitxiak ospatzen dira. Atorrak (gizonezkoen taldea) eta lamiak (emakumezkoen taldea). Atorraren jantzia gona, bruza eta praka zuriak, almohada zorroa burutik eta zapi koloretsua izaten da, eta Lamien jantzia, soineko beltza, artilezko ileorde zuria, zapi koloretsua eta aurpegia margoztuta. Atorrak, goizean, eta Lamiak, arratsaldean, Mundakako kaleak alaitzen dituzte euren kantu, dantza eta umore onarekin.

**Ekainak 23**, **udako solztizioa:** sua piztu eta sorgina erretzeari ekiten diote, txistuaren soinupean, kristautasunaren aurretiko erritoei jarraituz.

**Ekainak 29**, **San Pedro:** herriko festak. Jaietan, kontzertuez, musika bandaren emanaldiez eta beste hainbat ekintzez gozatzeko aukera dago. Besteak beste, aurreskua, buruhandiak, kukaña, eta elizinguruak. Ahaztu barik Sukalki Txapelketa.



**Uztailak 22**, Madalena eguna: kondairaren arabera, Izaro uhartearen jabetza gaineko gatazka baten ondoren, Bermeo eta Mundakak, Elantxobe epaile zela, auzia estropada batekin konpontzea erabaki zutenetik ospatzen da.

**Abuztuko amaiera**, **Euskal Jaia:** aipatzekoak dira jantzi tipikoak, txistulariak, dantzak, trikitixa eta pilota partidak.

**Azaroak 25**, **Santa Katalina:** Santa Katalina ermitan eta enparantzan ospatzen da jaia.

**Abenduan**, Txakolin eguna.

**Beste jai batzuk**: Kandelaria (Mundakako inauteria, otsailaren 2an), Santa Ageda, Olentzero, etab.

# Fiestas y cultura



**A lo largo del año** Mundaka propone a visitantes y lugareños un amplio calendario de actividades festivas y culturales, entre las que se puede destacar:

**Aratuste** (Carnaval). En Mundaka se celebran unos carnavales muy curiosos en los que participan los hombres, a los que se les llama "atorrak", y las mujeres, llamadas "lamiak". La indumentaria típica de los ATORRAS está constituida de falda, blusón y pantalones blancos, así como una funda de almohada a modo de capucha y pañuelo de colores. La de las LAMIAS, se compone de vestido negro, peluca blanca de lana, pañuelo de colores en la cabeza y el rostro maquillado. Tanto los atorras, que salen por la mañana, como las lamias, que lo hacen por la tarde, alegran las calles de Mundaka con su buen humor, canciones y bailes.

**23 de Junio, solsticio de verano**: Hoguera y quema de la bruja, cumpliendo unos ancestrales ritos precristianos al son del txistu.



**29 de Junio, San Pedro**: Fiesta patronal que dura varios días con conciertos, banda de música, etc... Se puede disfrutar de danzas típicas como el Aurresku, pasacalles con gaiteros, las procesiones, los cabezudos, la kukaña marítima ... sin olvidarnos del concurso gastronómico de Sukalki.

**22 de Julio, Madalena**: Según la leyenda se celebra desde que tras un litigio por la posesión de la isla de Izaro, Bermeo y Mundaka decidieron zanjarlo con una regata en la que el pueblo de Elantxobe actuó como árbitro.

**Finales de agosto, Euskal Jaia**: a destacar los trajes típicos, los txistus, las gaitas, el baile de la era, la trikitixa, los partidos de pelota y concurso gastronómico de Marmitako.

**25 de Noviembre**: Santa Catalina: La festividad se celebra en la ermita y en la plazoleta que lleva su nombre.

**Diciembre**: Día del txakoli.

**Otras festividades**: El 2 de febrero Candelaria (carnaval de Mundaka), Santa Ageda, Olentzero, etc.



# Mundaka eta inguruak

Mundakatik gertu turismo-interes handiko eremu eta herri asko daudenez, txango ugari egin daitezke bertatik.




© FMGB Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao 2012, Erika Barahona Ede. Derechos reservados. Prohibida la reproducción total o parcial

# Mundaka
# y su entorno

Desde Mundaka se pueden realizar excursiones a zonas cercanas y localidades próximas de gran interés turístico



**LAGA HONDARTZA**
PLAYA DE LAGA
Ibarrangelu **26km - 34 min.**

LAGA
ELANTXOBE
SANTIMAMIÑE
OMA
3km
(oinez - a pie)
LEKEITIO ▶



**ELANTXOBE**
**25km - 33 min.**



**LEKEITIO**
**33km - 42 min.**



**SANTIMAMINE KOBA**
CUEVA DE SANTIMAMIÑE
Kortezubi **15km - 20 min.**




**OMAKO BASOA**
BOSQUE DE OMA
Kortezubi
**15km - 20 min.** (autoz - en coche)




# 1 Katillotxu

## PR BI 176

Ibilbide ikusgarria Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako ikuspegirik onenez gozatzeko.

Un sorprendente recorrido para disfrutar de unas inmejorables vistas de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

**Luzera** / Distancia 8,4 km
**Iraupena** / Duración 3 h








## 2 Bizlkleta Ibilbidea
Recorrido en bicicleta

Txakolin-parretan barrena ibiliko gara eta balio paisajistiko eta interes kultural handia dituzten txokoak zeharkatuko ditugu.

Un paseo entre emparrados de txakoli, para conocer algunos de los enclaves de mayor atractivo de la zona.

**Luzera** / Distancia 9,2 km

**Iraupena** / Duración 2,30 h









Mundaka Bilbotik 40 km-tara dago eta Donostiatik eta Gasteiztik 90 km-tara. Loiuko aireportua 25 km-tara dago.
Garraio publikoari dagokionez, Euskotren trenak eta Bizkaibus autobusak ia ordu erdiro pasatzen dira Bermeotik Bilbora eta Bilbotik Bermeora bidean.
Euskotren: Bermeo-Bilbo
Bizkaibus: Bermeo-Gernika-Amorebieta Etxano-Bilbo A3515.

Mundaka se encuentra a 40 km de Bilbao, 90 km de Donostia-San Sebastián y otros tantos de Vitoria-Gasteiz. El aeropuerto de Loiu se encuentra a 25 km.
En cuanto al transporte público, los trenes Euskotren y los autobuses Bizkaibus funcionan prácticamente cada media hora con dirección Bermeo-Bilbao y Bilbao-Bermeo.
Euskotren: Bermeo-Bilbao
Bizkaibus: Bermeo-Gernika-Amorebieta Etxano-Bilbao A3515.

**GARRAIO PUBLIKOA** - **TRANSPORTE PÚBLICO**

Taxia • Taxi ................................ Tel.: 609 487 066
946 876 503

**LARRIALDIAK** - **URGENCIAS**

S.O.S. 112

**TELEFONO INTERESGARRIAK** • **TELÉFONOS DE INTERÉS**

Udaletxea • Ayuntamiento ....................Tel.: 946 177 200
Turismo Bulegoa• Oficina Turismo....Tel.: 946 177 201
Udaltzaingoa • Policía Municipal .......Tel.: 946 177 018
656 793 505



**SURF**

1 **Mundaka Surf Shop** Tel.: 946 177 229
www.mundakasurfshop.com

2 **Mundaka Barra Surf**: Tel.: 688 683 144
www.mundakabarrasurf.com

3 **Gudari Caribe Surf** Tel.: 627 889 331
www.gudaricaribe.com

**AISIALDIA - OCIO**

1 **Turismo Bulegoa - Oficina de Turismo**
(Bizikleten alokairua - Alquiler de bicis)
Tel.: 94 617 72 01
www.mundakaturismo.com E-mail: turismo.mundaka@bizkaia.org

2 **Urdaibai On** (Ontzi ibilbideak - Paseos en barco)
Tel.: 626 859 477 - 692 859 538
www.urdaibaion.com E-mail: urdaibaion@urdaibaion.com

3 **IZKIRA URDAIBAI** (Ontzi ibilbideak – Paseos en barco)
Tel.: 633 331 230
www.izkiraurdaibai.com email: cristina@izkiraurdaibai.com

4 **Urdaibai Boat** (Ontzi ibilbideak – Paseos en barco)
Tel.: 688 771 771
E-mail: urdaibaiboat@gmail.com







KIÑUKA

MUNDAKA

TURISMO BULEGOA - OFICINA DE TURISMO
Joseba deuna kalea, z/g
Tel: 94 617 72 01
e-mail: turismo.mundaka@bizkaia.org
www.mundakaturismo.com

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUSKADI BASQUE COUNTRY

Turismo URDAIBAI Reserva de la Biosfera

surfing EUSKADI surfingeuskadi.net